

SAN JOAN GURUTZEKOREN IDAZLANAK

Aurreko *Karmelen Kantu Espiritualaren* lehen kantaren eta beraren azalpenaren euskarazko itzulpena jarri genuen. Oraingoan, azken kantaren eta beraren azalpenaren euskarazko bertsioa. Baina aurrez, sarrera gisa, egin diezaiegun begirada orokorra haren idazlanei.

Batzuek beraiek bizi duten barne-giro aberatsa besteen onurarako agertu beharra izaten dute, seme-alaba espiritualei letretan jaki preziatu hori eskaini beharra. Hori da san Joan Gurutzekoren kasua. Santa Teresak gidatu zuen Karmeldarren erreforman bizkarrezur eta zutabe izatea egokitu zitzaion; erreformaren aita izatea. Gobernuan eta kanpoko gidaritzan baino gehiago, barruko gidaritzan, espirituen maisutzan, zuzendaritzan.

Guganaino iritsi diren Joan Gurutzekoren lehen idazkiak poesiak dira eta Toledoko kartzelan idatziak. Handik atera zituena poemen izenburuak ematen dizkigute testigu zuzenetako batzuek, esaterako, Magdalena Espiritu Santuarenak: “Sacó el Padre, cuando salió de la cárcel... las canciones o liras que dicen: ‘*Adónde te escondistes...?*’, hasta la que dice: ‘*¡Oh ninfas de Judea!*’ Las demás compuso el Santo estando después por rector del colegio de Baeza”. Testigu honek aipatzen dituen lirak, *Kantu Espiritualaren* lehen 31 ahapaldiak dira, *AK* edo lehen idazketaren 31 kantak. Ziur dakigu *Erromantzeak* ere han idatzi zituela (Hirutasun Santuaren 9 erromantze eta “Super flumina Babilonis” salmoaz 1), baita “Fonte que mana y corre” poema ere (*Ongi dakit nik iturria non den, gaua izan arren*). Hauek izango dira Santuaren obra idatziaren ha-

siera distiratsua, haren tratatu handiak, lehertze poetikoa aurretik zutela, bertso berdigabeko haien loreen fruiturik helduena balira bezala.

Baina bere tratatu handiak idazten Calvarioko komentuan hasi zen, Toledoko kartzelatik irten berri zela. Lehenik, Avilan egin zuenez, sententzia solteak idazten ditu Beasko mojentzat gutuntxoetan, bera haien aitor-entzule eta kontzientzi zuzendari baitzen. Gero *Kautelen* tratatu txiki zoragarria idatzi zuen, perfekzio erlijiosoaren laburpen preziatua. Horren ondoren, *Kantu Espiritualaren* kanta batzuen azalpen partziala, moja eta fraide karmeldar oinutsek eskatu ahala haien behar espiritualei egokiturik, eta *Karmel Mendira Igoeraren* hainbat orrialde eta kapitulu. Beraz, apurka-apurka doa landuz eta osatuz, gero bere tratatu handiak izango zirena; hasieran oraindik tratatu-egiturarik gabe, aurrez idatziriko poesiak eta barne-esperientzia bidean argi-emaile eta eragile zituela. Aurrez lehen saiotxoak baizik ez dira, tratatu baten kapitulu bihurtuko zirenak. Baina kontuan izan behar da lehen idazki hauek behin betiko forma hartzen dutela laster batean. Santuak bere obrarik luzeenari *Karmel Mendira Igoerari* forma eman diezaioanean, hara igaroko dira hitzez hitz, zuzenketa eta orrazketarik gabe. Dirudienez, barruan ongi tolesturik eta heldurik zeuzkan; buruan buelta asko emanik; ez zebilen atzera-aurrera, ez zegoen zalantzan eta ezmezean. Behin betiko ideiak ziren hasierarik. Ez zuen esandakoetan atzera egin eta zuzendu beharrik.

Granadako garaia izan zen, alde horretatik, aberatsena. Granadan amaitu zuen *Karmel Mendira Igoera*, Calvarioko komentuan hasi eta Baezan jarraitu zuena; Granadan idatzi zuen *Gau Iluna*; han osatu zuen, Ana Jesusenaren eskariz, *Kantu Espirituala*. Toledoko ziegan idatziriko 31 kantak osatuz, gainerako ahapaldiak Baezan idatzi zituen, eta, azkenik, hamabost egunean idatzi zuen, Bikario probintziala zela (1585-1587), eta Ana Peñalosa anderearen eskariz, *Maitasun*

Gar Bizia. Testiguengandik datorren xehetasun bat dakigu: *Kantu Espiritualaren* ahapaldi batzuen azalpena belauniko idatzi zuela. Maria Jesusenak dio, gai hauek hain begirune handiz tratatzen zituen, guztia belauniko idazteraino. Andres Gizakundekoak ere gauza bera dio.

Liburu hauek idaztea ez zen isileko kontua izan. Fraideek, beraren mendeko ziren erlijiosoek, esaterako, frai Joan Ebanjelistak eta Baltasar Jesusenak, bazekiten zer idazten ari zen, eta gauza asko haiekin komentatzen zituen; are gehiago, haiek eskaturik eta haien beharretara eratzen zituen batzuetan. Bera Granadan zela, kopiak egin ziren komentuan Santuaren original autografotik aterata, eta fraideen eskutik esku-za zebiltzan. Jakin badakigu, gainera, autoreak berak azaltzen zizkiela erlijiosoei bere idazkiak, batez ere *Karmel Mendira Igoera*, haientzat ulertzen zail samarra zelako. Arazo honetaz, testigantza interesgarri bat dugu. Granadan, liburu hauek idazten zituenean, Santuaren mendeko izan zen Baltasar Jesusenaren testigantza da, eta hau dio hitzez hitz:

‘El libro de la *Declaración de las canciones* y de la *Subida del Monte Carmelo* lo leyó (este testigo, en Granada) de letra de mano de dos padres de la dicha Orden... El de la *Declaración de las canciones* estaba escrito de letra del padre fray Tomás de la Cruz, novicio que entonces era del convento de Granada, ya difunto, y el otro (el de la *Subida*), de letra del padre fray Juan Evangelista, que era procurador del dicho convento... Sabe que los dichos libros eran del dicho siervo de Dios (fray Juan de la Cruz) y no de otra persona, porque se los vio escribir y componer, y el libro de la *Subida del Monte* vio que lo declaraba a los religiosos, por ser tan dificultoso de entender, y el mismo Santo decíalos haber compuesto. Y que el de la *Declaración de las canciones de amor de Dios* había hecho porque se lo había pedido la madre Ana de Jesus..., y este testigo los vio encuadernados de letra del dicho Santo, y que de allí los sacaban después los dichos pa-

dres por su devoción, y lo mismo las monjas descalzas; en particular se acuerda lo sacó la madre Isabel de la Encarnación, priora que es del convento de Jaén. Y el de la *Llama de amor viva* lo hizo a petición de doña Ana de Peñalosa, que entonces estaba en Granada y la confesaba el Santo, y este testigo vio que la susodicha envió un criado suyo que sacase el dicho libro que el Santo había compuesto’.

Frai Joan Gurutzekok Granadan egin ohi zituen *Karmel Mendira Igoeraren* azalpenen beste testigu bat aita Martin San Joserena da, eta xehetasun hau gehitzen dau: Santuak berak egindako eta liburuaren hasieran jarri zuen mendiaren marrazkia erabiltzen zuela hura fraideei azaltzeko.

Testiguen diotenez, ez ziren liburu ezagun hauek soilik hark idatzi zituenak. Ama Isabel Gizakundekoak, Granadan zuzendari espiritual izan eta Santuaren argazki bat egiteko agindu zuenak eta bere eskuetan *Kantu Espiritualaren* koardnotxo originalak izan zituenak, dio, hark idatzitako tratatu txiki bat ikusi zuela: *Propiedades del pájaro solitario*; han azaltzen zizkiela pertsona espiritualei perfekzio-bidean arimek izan behar duten bakardadea eta zerura adi eta arretaz egon beharra. Argi dago ez dela nahasi behar *Kantu Espiritualean* txori bakartiaz dakarren orri erdi inguruko azalpenarekin, ama Isabel Gizakundekoak ez baitzion ‘tratadillo’ deituko halakoari.

Aita Luis San Jeronimorenak, frai Joan Gurutzekoren mendeko izan zenak Calvarioko eta Granadako komentuetan, Jainkoaren zerbitzariaren eskuz eta letraz idatzirik tratatu txiki bat ikusi zuela dio, fedez era goi-goikoan idatzirik zena. Ez da nahasi behar idazki hau *Igoerarekin*, hemen ere hainbat kapitulu egon arren fedez era goi-goikoan idatzirik. Aita Luis San Jeronimorenak ongi ezagutzen zuen *Igoera* eta ez zuen obra desberdintzat joko hala ez balitz. Gainera, haren letraz idatzirik ikusi zuen idazkia ez zuen tratatu txikitat

joko obra bera balitz, *Karmel Mendira Igoera* tratatu handia, san Joan Gurutzekoren obrarik luzeena, baita, Karmeldarrei, fraideei eta mojei, eskainia. *Karmel Mendira Igoeran* eta *Kantu Espiritualean* ere fedez era goi-goikoan idazten du; baina ez dago motiborik guganaino iritsi ez den tratatu txikitat ez hartzeko.

Hauen testigantzak garbi uzten du, Joan Gurutzekok guganaino iritsi diren idazlanak baino gehiago idatzi zituela. XVIII. mendean ahalegin handia egin eban aita Andres Gizakundekoak, Ordenako artxiboetan bila jardun baitzuen ezer berririk aurkitu gabe. Aita Krisogonok dio, haren idazki asko galdu zireneko data ere nahiko ongi zehatz daitekeela. 1591ko azken hiletan izan zen. Granadako moja baten testigantza autografo eta eskuizkribua dugu, ama Agustinak desagerrarazi zituen haietako asko, Joan Gurutzekok izan zuen pertsegitzaile amorratuenaren esku erori eta bere interpretazio makurrez frogabidetzat erabil ez zitzan. Erreformatan izan zuen semeetako bat zen mendeku-gosez ari zen fraide hau, une hartan Andaluziako Bisitatzaille Probintziala zena: frai Diego Ebanjelista. Ama Agustinak hau dio hitzez hitz: ‘Hiciéronme a mí guardiana de muchas cartas que tenían las monjas como (si fueran) epístolas de San Pablo y cuadernos espirituales altísimos, una talega llena, y como eran los preceptos tantos, me mandaron lo quemara todo, porque no fuera a manos de este visitador, y retratos del Santo los abollaron y deshicieron (*Esk.* 8568 fol. 445)’.

Berarekin bizi ziren fraideek diote, frai Joanek bere obrak idatzi zituenean, ez zeukala gelan Brebiarioa, Biblia eta gurutze bat baino. Beste batzuetan *Flos sanctorum* ere ikusi zioten gelan beste haiekin batera. Horrek ez du esan nahi Santuak libururik irakurtzen ez zituenik. Ezta, idazten zuenean, Eskritura Santu, bere esperientzia, jakinduria espiritual eta goiko inspirazio hutsez ari zenik ere; ez, beste hainbat liburu kontsul-

tatzen zituen, baina komentuko liburutegitik hartzen zituen eta erabili ondoren hara itzultzen zituen berriro.

Ez da erraz san Joan Gurutzekoren idazkietan idazle jakin batzuen eragina eta lorratz sendoa antzematen. Bibliako aipamenez gainera, argi eta garbi aipatzen ditu berak hainbat autore, esaterako, Dionisio Areopagita, san Agustin, san Gregorio, san Tomas, san Bernardo, Boecio, Boscán eta Teresa Jesusena; beste batzuk ere, zehazki aipatu ez arren, behin eta berriro agertzen ditu haietako ideiak eta hori ez da kasualitatez gertatzen. Horrek esan nahi du hainbat autore erabili zituela bere bizitzan barrena eta nolabaiteko lorratza utzi zutela Santuagan. Dena dela, urrutiko eraginak izango lirateke, pisu handirik gabeak; haren obra osoa kontuan izanik, ezer funtsezkorik ez dute osatzen eragin horiek. Haren doktrinaren oinarria, bizkarrezurra eta are xehetasunak beraren espirituan bilatu behar dira, haren obra batez ere beraren esperientziatik eraikia baita. Betiere Eskritura Santuan bermatzen du, teologo on gisa, esperientziatik eraikitzen duen doktrina.

<i>Inor ez zen begira</i>	<i>Que nadie lo miraba,</i>
<i>Aminadab ere ez zen ageria,</i>	<i>Aminadab tampoco parecía</i>
<i>hesiak bakez dira</i>	<i>y el cerco sosegaba,</i>
<i>eta zalditeria</i>	<i>y la caballería</i>
<i>uren aurrean beherantz da abia</i>	<i>a vista de las aguas descendía.</i>

Kantu Espiritualaren azken kanta (BK 40 / AK 39)

40. KANTA

*Inor ez zen begira,
Aminadab ere ez zen ageria,
hesiak bakez dira
eta zalditeria
uren aurrean beherantz da abia.*

Azalpena eta oharpena

1. Emaztea jakinean da, hemen, bere borondatearen gutizia honezkero gauza guztietatik askatua eta Jainkoaren ondoan ezarria dela maitasun estu-estuaz; eta arimaren alde sentsitiboa, beronen indar, ahalmen eta gose-egarri guztiekin, espirituarekin batera dagoela, haren errebeldiak jadanik bukatuak eta menderatuak; eta deabrua, era askotako jarduera luze eta borroka espiritualaren bidez, menderatua eta oso urrutira aldendua duela; eta bere arima bat egina eta eraldatua dagoela aberastasun eta dohain zerutar ugarirekin; eta, honen arabera, ongi prestatua, eratua eta sendo jarria bere Senarraren ondoan (Kt 8, 5), heriotzaren basamortuan zehar, atseginetan igeri, bere Senarraren aulki eta eserleku aintzatsuetara igotzeko; eta Senarrak honezkero arazo honi amaiera eman diezaion gogo bizia izanik, hartara gehiago eragitearren, aurrean jartzen dizkio gauza hauek guztiak azken kanta honetan; bost gauza aipatzen ditu hemen.

Lehenengoa, honezkero bere arima gauza guztietatik askaturik eta aldendurik dagoela.

Bigarrena, deabrua menderatua eta uxatua dagoela.

Hirugarrena, grinak lotuak daudela eta gutizia naturalak lotuak eta hilduratuak.

Laugarrena eta bosgarrena, alde sentsitiboa eta behekoa eraberritua eta garbitua dagoela eta alde espiritualarekin bat egina; horrela, ez bakarrik ez dio eragotziko ondasun espiritual haiek hartzeko, haietara egokitu ere egingo da, orain di-

tuenak ere, berak ahal duen heinean, onuragarri baitzaizkio. Honela dio:

Inor ez zen begira.

2. Hau esatea bezala da: nire arima honezkero biluzik, askaturik, bakarrik eta kreatura guztietatik, goikoetatik eta behekoetatik, aldendurik dago, eta zurekin barne-bildutasunean hain sakon sarturik, haietako inork ezin baitu begiz jaso zuzan dudan barne-atsegina; hau da, ez da nire arima bere gogotasunez gogoz mugi dezakeenik, ezta bere ezerezaz eta zabarkeriaz gogoz kontra eta nahigabez mugi dezakeenik ere; izan ere, nire arima haiengandik hain urruti egonik eta zurekin gozaten hain barnean, haietako inork ere ezin dezake begiz jo. Baina ez haiek bakarrik,

Aminadab ere ez zen ageria.

3. Aminadab honek Eskritura Santuan (Kt 6, 11) deabrua esan nahi du, espiritualki ari garela, arimaren etsaia; honek bere artilleriako munizio ugariaz gerra egiten zion eta asaldatzen zuen, arima gotorleku honetan eta bere Senarrarekin barne-bildutasuneko gordelekuan sar ez zedin, behin han sartuz gero, han dituen bertutez eta Jainkoaren besarkadaz, hain indartsu, sendo eta garaile dago, non, deabrua hara etortzen ez bakarrik ausartu ez, izu-ikarak harturik, ihes joaten baita urruti, handik gehiago agertzen ausartu gabe; era berean, haren bertuteen praktikagatik eta honezkero duen perfekzio-egoeragatik, hain uxatua eta menderatua dauka arimak, ez baita gehiago agertzen haren aurrean. Horrela, Aminadab ere ez zen agertzen nolabaiteko ahal-izatez lortu nahi dudan ondasun hau niri eragozteko.

Hesiak bakez dira.

4. Hesiak esatean, hemen, grinak eta gutziak adierazi nahi ditu arimak; haiek oraindik gaindituak eta motelduak ez dau-

denean, inguratu egiten dute estu, gerra eginez batetik eta bestetik; horregatik hesia deitzen die. Hesia ere honezkero bakean dela dio, hau da, grinak arrazoiaren mende jarriak eta gutziak baretuak.

Hau honela izanik, ez dadila gera eskatu dizkion mesedeak hari agertu gabe, aipaturiko hesiak ez baitu eragotziko. Hau dio, arimak bere lau grinak Jainkoagana zuzendurik eta gutziak hilduraturik eta purgaturik izan arte, ez delako gai izango Jainkoa ikusteko. Eta honela jarraitzen du:

*Eta zalditeria
uren aurrean beherantz da abia.*

5. Urek, hemen, arimak bere barruan Jainkoarekin egoera honetan gozaten dituen ondasun eta atsegin espiritualak adierazten dituzte. Zalditeriak, berriz, alde sentzitiboko gorputz-zentzumenak, bai barrukoak eta bai kanpokoak, esan nahi ditu, haiek beren gauzen fantasmak eta irudiak baitituzte beren baitan.

Emazteak dio hemen, zalditeria beherantz abiatzen dela ur espiritualen aurrean; arimaren alde sentsitiboa eta behekoa, ezkontza espiritualeko egoera honetan, hain garbiturik dago eta nolabait esateko hain espiritual bihurturik, alde hura bere ahalmen sentsitiboekin eta indar naturalekin batera, bildu egiten baita, Jainkoa arimari espirituaren barruan ematen ari zaion handitasun espiritualetan esku hartzera eta haietaz gozatzera, bere erara, Davidek adierazten duen bezala (Sal 83, 3) hau esatean:

Nire bihotza eta haragia Jainko biziagan poztu ziren.

6. Eta kontuan izan behar da, Emazteak ez duela esaten hemen, zalditeria urak gozatzera jaitsi zenik, uren aurrean beherantz abiatu zela baizik; alde sentsitibo hau eta beronen ahalmenak ez baitira gai benetan eta beren esentzian ondasun espiritualak ahogozatzeko, ez bizitza honetan soilik, ezta beste

bizitzan ere; espirtuaren nolabaiteko gainez egitetik, zentzumen bidez, hartzen dute, ordea, haietatik gozamen eta atsegina; horren eraginez dira gorputzeko zentzumen eta ahalmen hauek barne-bildutasunera erakarriak, han edaten ari baita arima ondasun espirtualetako ura; eta hori urak diren bezala edatea eta ahogozatzea baino gehiago da haien bistan beherantz jaitea.

Eta arimak esaten du hemen behera jaisten zela, ez joan zela ez bestelako hitzik, alde sentitiboaren eta espirtualaren arteko harremanean, ur espirtualen edaria ahogozatzen denean, beren jarduera naturaletatik jaisten dela, hauek utziz, bildutasun espirtualera adierazi nahirik.

7. Perfekzio eta prestaera hauek guztiak jartzen dizkio aurrean Emazteak bere Maiteari, Jainkoaren Semeari, Eliza borrokari honetan Jainkoak jarri nahi izan duen ezkontza espirtualetik Eliza garaile hartako ezkontza aintzatsura aldatua izateko desiraz; eramango ahal ditu hara Jesusen izen txit gozoari, arima zintzoen Senarrari, dei egiten dioten guztiak. Berari ohore eta aintza, Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batean, menderen mendetan. Amen.

Gure irakurle euskaldunei, san Joan Gurutzekoren obraren zati aipagarrienetako batzuk ekaini nahirik, *Kantu Espiritualaren* lehen eta azken kantak agertu dizkiegu *Karmel* aldizkariaren azken bi zenbakietan, eta aurrez 28. Kanta, santa Teresa Lisieuxkoak maiteen zuena. Argi ikusten da autoreak ere bere obren artean maiteenetakoa zuela *Kantu Espirituala*. Aparteko ahalegina egin zuen obra honetan. Hainbeste orrazketa eta ukitu egin zizkion lehen idazketari (AKri), bigarren idazketa (BKa), kanten ordena eta idazketa landuago eta osoagoagatik, desberdina dena sortu baitzuen. Irakurle euskaldunari haren idazkietan barneratzeko eta dastatzeko gogoia piztu badiot, bete dut helburua.

Luis Baraiazarra Txertudi